

# B

BARREN

TOKIKOM



**ONU,**  
**nortasun handiko auzoa**



## D. Karlos, euskaltzale leiala

Iritsi nintzen elizara presaka, aparkaleku berrian autoa utzi eta zazpiretarako estu. Atarian jende gutxi zegoen, eta barruan ez askoz gehiago. “Ze arraroak dira hiletak

Azpeitian”, pentsatu nuen. Neuk

jakin gabe Errosariorako iritsi

nintzen, ordea, eta horrela tarte

hartan, errezoen *mantrak* eta

Pelloren azalpen historiko

batzuk gustura entzuteaz

gain, D. Karlosen

inguruan pentsatzeko

denbora izan nuen.

Jaunartzea

egin nuenean

bera zen

parrokoa.

Beti zuen

irribarre


b a t

umeentzat, eta bakearen irudia zen niretzat. Ikastolaren 50. urteurrena dela-eta liburua egitekotan gaudenez, haren oroitzapenarekin topo egin nuen berriz iaz. “Zenbat egin izan duen D. Karlosek Ikastolaren alde”, entzun diot sarri nire tia Milari, garai haietan Elgoibarko Izarrako presidente izan zenari. “Diktadura eta trantsizio garaiak ziran, garai zaillak! Eta han egon zen parrokoa, ikastolari babes ematen...”.

Kontu hauek guztiak aitortzekotan ginen liburuan, eta urrian D. Karlosi elkarrizketa egitekoak, baina betirako joan zaigu. Orain, bere jaioterrian egin zioten azken agurrean Munillak hari buruz esan zituen hiru ezaugarri datozkit burura: “Euskaltzalea”, “beti irribarrez” eta “leiala”. Niretzat lehen aldia zen Munilla zuzenean entzuten nuena, eta adi egon nintzen ea zer esango ote zuen, jakin-minez. Halako zerbait entzun nion: “Duela 25 urte ezagutu nuen D. Karlos, eta esan beharra dut asko lagundu didala azken urte hauetan nire euskara traketsa hobetzen eta hainbat itzulpenetan. Horrez gain, beti irribarretsua, apaiz leiala izan da”.

Ekainaren 9an, Ikastolaren 50. urteurrenean, adierazi genion esker ona berresten dut. Agur eta ohore, Don Karlos.

Eduarne Bilbao



“Zenbat egin izan duen D. Karlosek Ikastolaren alde’,  
entzun diot sarri nire tia Milari”



**Makina Erreminta Arloko Prestakuntza  
Teknikorako Fundazioan (IMH) lan egiteko eskaintza:**

### MANTENIMENDU ETA MUNTAIA MEKANIKO ARLOKO IRAKASLEA

■ **BETEBEHARRAK:**

- Mantenimendu eta muntai mekaniko arloko ikastaroak ematea
- Enpresentzako proiektu eta zerbitzuen garapena

■ **ESKATZEN DA:**

- Mantenimendu eta Muntai Mekaniko arloan lan eskarmentua
- Lanbide heziketa edo ingeniari-tza mekanikoko ikasketak
- Autonomia eta inizatiba
- Harremanetarako gaitasuna
- Euskararen domeinua

■ **BALORATUKO DA**

- Ingelesa jakitea

■ **ESKAITZEN DA**

- Berahala lanean hastea

Interesa baduzu, bidali zure CVa [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) helbidera,  
eta gaitzat adierazi: **MUNTAIKO IRAKASLEA**

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**MAKETAREN DISEINUA** Jaione Unanue  
**KOLABORATZAILEAK** Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop.  
E. TIRADA 4.800 ale  
**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92  
**ISSN** 1139-1855

## Argitaratzailea:




## Laguntzaileak:



ELGOIBARKO LEKIA



MENDAKO UDALA



## GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Murrizketarik ez AHTn

Jubilazioak, soldatak eta oinarrizko zerbitzu publikoak etengabe murrizten, zergak eta prezioak gora, erosketa ahalmena behera, pribilegiatu batzuren onurarako gizartea pobretzen ari den bitartean, luxuzko AHT trenaren lanetan zentimo bat ere ez dutela murriztuko diote ahobetea. Geuk ere ezingo genuke AHTren kontrako kanpaina argiagoa egin. Oraindik AHT defendatzen jarraitzen duena are ageriago geratzen da orain.

Espainiarrengatik esango dugu aireportu hutsak eta AVE lineak ixten ari direla, eraikitzearen helburua sustatzaileak aberastea besterik ez zelako, eta bitartean, Eibar-Gasteiz autopistagatik utzi diguten zorra gutxi balitz, Iparraldean eta Espainian AHTren lanak geldituta egonik, loturarik edukiko ez duen linea hau egiten jarraitzen dute.

Bidegorria izateko besterik ez du balioko. Orduan, gainera, berdez margotu eta eskerak eman behar diegula aldarrikatuko dute, inoizko bidegorri garestiena edukiko dugulako beraier esker.

Ze erreskate, murrizketa eta ze demontre, enpresari-politikari lapurrak kartzelara!

AHT zenbat lehenago gelditu, orduan eta hobe denontzat.

AHT ez

### OHARRA

Elgoibarko Izarra kultur elkarteko langileen batzarrak bat egin du irailaren 26ko greba deialdiarekin. Hori dela eta, datoren asteazkenean **BARRE**neko erredakzioa eta Elgoibarko Izarra kultur elkartea itxita egongo dira. Beraz, datorren astelehenetik aurrera zerbait argitaratu nahi izanez gero (zorian agurrak edo merkatu txikiko iragarkiak barne), martitzen eguerdirako bidali beharko diguzue informazioa. Mila esker.



Zuhaitz  
Gurrutxaga

Aupa, Unai. Pare bat aste badira aurtengo San Bartolome jaiak bukatu zirela, baina festei buruzko hausnarketa pare bat egin nahi nituzke. Urte askoan zehar gure kirol konpromisoak direla-eta, ezin izan gara ibili inguruko lagun-en eritmoan, gauez, jaietan, eta juer-ga giroan. Zuk, oraindik ere elitean izanik, sakrifizio



Unai  
Arrieta

handiak egin beharko dituzulakoan nago, noski, eta parrandarako momentuek ongi hautatuak beharko dute izan. Neroni ere martxa horretan ibili naiz kirolari profesional egin nintzenetik, baina, aurtan, jada Beasain taldean, hirugarren mailan jokatzeko eta semiprofesional izanik, gauzak beste era batera ikusten ditut. Maila goragoko taldeetan nintzenean ere egiten nituen parrandak, noski. Ez dago ongi ikusia, kirolariok gaueko ordu txikietan ibiltzea, baina gezurra nioke monastegiko bizitza eramaten dugula salduko banu. Hala ere, orain futboleko guztiz profesional izateari utzi diodanean, nolabaiteko karga bat kendu dut gainetik. Badirudi jada jendearen begiradak ez direla hain zorrotzak, eta pentsatu, egin eta esaten ditudanak ez dute lehengo oihartzunik.

Kirolaria naiz, bai, Zuhaitz, eta kiroletik bizi naiz. Baina gaztea ere banaiz, eta nire adineko gazte askori bezalaxe, niri ere noizean behin ongi pasatzea gustatzen zait, lagunartean, gauez, baso bat eskuan eta musikaz blai. Nola ez!

Nik bezain ongi dakizu zuk, Zuhaitz, zeinen zaila den goi mailako kirola eta parranda uzta berean lotzea. Gure jardunak ahalegin fisiko eta mental handia eskatzen du, gastua, hustualdia, eman etengabea. Eta hori hala izateko atsedena ezinbesteko osagaia da, betetzeak behar beharrezkoak ditugu. Gure taldeko prestatzaile fisikoak dioen bezala: "Atsedena momentuetan ere entrenatzen ari gara". Atsedena entrenamenduari zati da, parte garrantzitsua. Atsedena ematen dio entrenamenduan egindako lanari forma eta indarra. Atsedena bidez loratzen da entrenamenduan landutakoa".

**“Profesional izateari utzi diodanean nolabaiteko karga kendu dut gainetik”**

**“Nolabaiteko onuraren esperoan zerbaiti uko egiteak ere merezi du”**

Gauza zoragarriak oparitu dizkit kirolari profesionalaren bizitzak urte askoan. Orain, ordea, nolabaiteko askatasun bat sentitzen dut, politikoki zuzena izan beharrik gabe eta anonimotasun osoan aritu ahal izatearekin. San Bartolome jaietara itzuliaz, esan behar dut urte askoan ez bezala, aurtan pare bat gautan irteteko aukera izan dudala, eta bai, garai batean gauza hauek publikoki esan ezin banituen ere, aitortu behar dut sokamuturra hasteko ordura arte ibili ginela festan. Ez al da nekagarria Unai, politikoki zuzena izan behar hori?

Esfortzua eta sakrifizioa gure helburuak lortzeko bi oinarritzko balioreak direla iruditzen zaizkit, bai goi mailako kirolean eta baita bizitzako beste edozein arlotan ere. Egunez egun eraiki behar diren dikeak, kolorerik eta grinarik gabeko etsipenaren itsasotik babes gaitzaten. San Bartolome jaietan zurekin batera gustura egingo nukeen parrandaren bat ordu txikiak arte; ez izan horren zalantzarik, Zuhaitz. Baina bete-beharrekin betetzeak ere asebetetzen nau askotan. Atsegina da une horretan komenigarri zaizuna egiten ari zarela jakitea. Batzuetan nolabaiteko onuraren esperoan zerbaiti uko egiteak ere merezi du.



ESKERTZA

**LOLI SUAREZ OLEAGA**

2012ko irailaren 18an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Elgoibarko auzo guztietan jarri dute hondakin organikoak biltzeko edukiontzi marroia

Etxean batzen den hondakinen %43 organikoa da

**E**lgoibarko familia guztiek izango dute aurrerantzean hondakin organikoak birziklatzeko aukera. Izan ere, edukiontzi marroia herriko auzo guztietan jarri du Debabarreneko Mankomunitateak. Uda aurretik, erdigunean, Santa Anan, Santa Klaran, Sigman eta Altzolan jarri zuten bosgarren edukiontzia, eta Udalak emandako datuen arabera, zonalde horietako familien %20 inguruk hartu dute parte hondakinak gaika biltzeko egitasmoan. Azken asteotan, etxeetako atarietan jarri dituzte orriak hondakinen gaikako bilketan izena emateko. Hala egin dutenek doan jasoko dute etxean hondakin-bereizketa egiteko behar den materiala. Oraindik izena eman ez dutenek herritarrentzako arreta bulegora joanda edo 943 670 294 telefono zenbakira deituta eman dezakete.

Edukiontzi berriak jarri ostean, Elgoibarko Udalak “herritarrak sentsibilizatzeko” jarraituko du, gaikako bilketarekin bat egin dezaten. Mankomunitatetik



zabaldutako kalkuluren arabera, etxean sortzen den zaborraren %43 inguru organikoa da, eta behar bezala bereizi, poltsa biodegradagarritan sartu eta edukiontzi marroietara botaz gero, konpost (ongarri) bihurtu daiteke. Edukiontzi marroien erabilera handitu ahala, edukiontzi berdeak kendu egingo dituztela jakinarazi dute Udaleko arduradunek.

Debabarreneko Mankomunitateak hainbat neurri berri jarri nahi ditu,

“epe luzera”, edukiontzi marroiak erabiltzearen ematen diren hobariak era egokian kudeatzeko. Horren harira, Hirigintzako zinegotzi Ricardo Garatek esan du: “Luzera, etxe bakoitzak txartel digitala izango du, eta horri esker, bosgarren edukiontzia erabiltzen dutenak identifikatu ahal izango dira. Horri esker, hobari gisa egiten diren deskontuak fakturan bertan ezarri ahal izango zaizkie birziklapen mota hau erabiltzen duten familiei..”

## Zabalik dago ‘Tertuliak’ egitasmoan izena emateko epea



Ikasturte berriarekin batera, *Tertuliak* egitasmoa martxan jarriko dute berriro Elgoibarko Izarrak, AEK-k eta Udal Euskaltegiak. Interesatuek urriaren 15era arte dute izena emateko aukera. Antolatzaileek esandakoaren arabera, euskara hiztun askorentzat zaila izaten da ikasitakoa erabiltzeko guneak aurkitzea, eta euskaraz bizitzeko gune horiek sortzea garrantzitsua dela uste dute. Horretarako prestatu zuen Elgoibarko Izarrak Tertuliak programa, euskaraz bizi nahi dutenen sarea handitzeko, hain zuzen ere. Mintzapraktika egin nahi duten bizpahiru laguneko taldeak osatuko dituzte, eta, talde bakoitzean, euskaraz mintzatzeko ohitura duen lagun bat egongo da. Doakoa da, eta urritik ekainera arteko iraupena du.

## Enpresak Lanpostuak sortzeko proiektuak

Enplegua sortzeko balio dezakeen proiektuak identifikatu asmoz, ekimen berri-tzailea abiatu du Elgoibarko Udalak. Gergune enpresako Esther Velascok zuzendu du proiektua, eta guztira, 40 bat enpresa txiki eta ertainetako ordezkariekin bildu da, haien beharrianak aztertzeko, horrek proiektu interesgarriak identifikatzeko balioko duelakoan. Proiektuan parte hartu duten enpresak ondorengo sektoreetakoak dira nagusiki: mekanizatua, enpresentzako zerbitzuak, galdaragintza eta laser bidezko soldadura, tratamendu termikoak eta azal tratamenduak. Enpresetako ordezkariekin izandako batzarretan, kalitatea, antolakuntza eta giza baliabideak, merkatuarekiko egokitzapena, errentagarritasuna eta produktibitatea, zuzendaritza eta estrategia, lan-kidetzeta eta irekitasuna, eta berrikuntza eta teknologia gaiak landu dituzte, besteak beste, eta enpresen interesgune nagusiak identifikatu dituzte: salmentak handitu eta kostuak murrizteko premia, langileen prestakuntza, kalitatea, eta enpresen arteko harremanak.

## Hauteskundeak Elgoibartarrak zerrendetan

Urriaren 21ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako hautagaiak ezagutzera eman dituzte alderdi politikoek. Eta, alderdi nagusien zerrendetan elgoibartarrak ere badaude. EAJren zerrendan, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea ageri da, 24. postuan, eta EH Bilduren zerrendetan bi elgoibartar daude, Gipuzkoako hautagaien zerrendan: Iñaki Lazarobaster 7. postuan, eta Joseba Osoro 25. postuan. 35 urteko ingeniari informatikoa da Lazarobaster, baseritarra eta Gipuzkoako EHNEko lehen-dakaria. Joseba Osoro, berriz, Lehen Hezkuntzako irakaslea eta Informatikan goi lizen-tziatua da.

## Irudia Altzolako obrak

Uztailaren erdi aldera hasi zituzten 634 zeharbidea konpondu eta egokitzeko lanak, eta dagoeneko hasi da errepide zati hori itxura berria hartzen. Altzolan egiten ari diren lanekin oinezkoen eta erabiltzaileen segurtasuna hobetzea dute helburu, eta horretarako, espaloiak, zebrabideak, ibilgailuak astiroago ibiltzera behartzeko koskak, eta autobusa gelditzeko zabalgunek egingo zituztela iragarri zuten.



## Udalekuetako irudiekin argazki erakusketa antolatu du Atxutxiamaikak

Aurtengo udalekuek eman dutena argazki erakusketa batean batu du Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak. Argazkirik esanguratsuenak errepasatzen hasi eta 350 argazkiz osatutako bilduma osatu dute. Eguenean, irailak 20, zabaldu zuten erakusketa eta datorren domekara arte egongo da zabalik, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Eguenean eta barixakuan 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik, eta zapatuan eta domekan, goizez 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara.

## Pintura eta eskulan tailerrak antolatu ditu

### Mendaroko Udalak

Astelehenetan izango dira pintura eskolak, eta martitzenetan, eskulan tailerrak. Biak ere San Agustín kulturgunean, 18:30etik 20:00etara. Urrian hasiko dira eskolak eta ekainean bukatuko dira, eta matrikulak 150 euro balio ditu. Interesatuak irailaren 25era arte dute izena emateko aukera. Hala ere, Mendaroko Udalak jakinarazi du gutxienez lau laguneko taldeak osatu beharko direla tailerrak martxan jartzeko. Era berean, tailer hauetan gehienez ere hamar laguneko taldeak hartuko dira. Hala, izena emandakoak gehiago badira, lehenengo hamarrak hartuko direla jakinarazi dute.

## Zaharberritze eta birziklatze tailerra antolatu du Eskuzek

Elgoibarko Eskuz arte tailerrak zaharberritze eta birziklatze ikastaroa antolatu du. Urriaren 2an hasiko da ikastaroa, eta astean bi egunez egingo dira: martitzenetan, 15:00etatik 17:00etara, eta eguenean, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko bi telefono zenbaki jarri dituzte antolatzaileek: 615 764 337 / 678 840 451.

# ONU: AUZO SENTIMENDUA



**Gaur egun Ermuaranbide izena dauka kaleak, baina elgoibartar askok ONU izenaz ezagutzen dute. San Frantzisko izena zeukan sorreran, eta Frankismo garaian *Avenida 21 de septiembre* izena jarri zioten kaleari, Francoren tropak egun horretan sartu zirelako Elgoibarren. Azkoiti aldetik iritsi ziren tropak Elgoibarrera gaurko egunez, 1936an, eta kale horretatik sartu ziren herrira. Historia luzea du kale honek, baina izenen gainetik, izana dago eta auzotarren arteko harremanak egin du berezi auzoari. Auzokide horiek duten auzo sentimendua berezia da, eta hori ospatzeko ONU auzokoen topaketa antolatu dute biharko.**

**Ainhoa Andonegi**

**A**uzo sentimendua. Hitz horiekin deskribatzen dute ondoen ONU-ko auzotarrak zerk batzen dituen. Industrializazio garaia zen, eta Espainiako lurralde askotako jendea iritsi zen Elgoibarrera 50eko hamarkadan, lan bila. Arrazoiak arrazoi, familia etorkin horietako asko bildu ziren auzo honetan. Gerardo Oterok ondo gogoratzen du bere etxepeko bosgarren solairuan bizi ziren familien jatorria: “Bosgarren solairuan, bost familia bizi ginen bost etxetan! Palentziarrak, galiziarak, andaluziarrak, extremadurarrak eta euskaldunak”. Eraikin horri deitzen zioten hasiera batean ONU, baina gero kaleari berari ere izen berbera eman zioten herritarrek. Gaur egun ere, jende askok izen horrekin ezagutzen du Ermuaranbide kalea. Andoni Segundok azaldu duenez, postariak ere zuzen banatzen zituen eskutitzak gutunazalean ONU eta portal zenbakia jarrita.

Ermuaranbide kalea asko aldatu da azken urteotan: Sallobente erreka etxebizitzien azpitik pasatzen zen lehen, eta orain ibilbidea aldatuta dauka. Eta, gaur egun etxebizitza berri eta dotoreak ikusten ditugun lekuan, garai batean enpresak ziren nagusi. Denboran atzera eginez, industria auzo garrantzitsu bat aurkituko dugu Ermuaranbide kalean. Elgoibarko enpresa garrantzitsu askok kale horretan hasi zuten euren ibilbidea. Aurten ehun urte egin dituen Alcorta enpresako matxinoaren soinua ohikoa izan zen ingurune horretan, 1974ra arte. Urte hartan eraman zuten forja Sallobente auzora, eta 1988-90 urteen artean bota zuten Ermuaranbide kaleko lantegia. Danobat, Ajubita, Zubacor, Doimak, Industrias Elgoibarresas, Juaristi y Laxta, Arriola y Cia, Lodoso aroztegia, Zaher, Clerigué, Pikupe, Kalman, Olaldea, Asima eta Biena aroztegiak, Kondia edota Alkartu enpresa ezagunek ere kale honetan izan zuten hasiera, gaur egun gutxi batzuk geratzen diren arren. Horrez gain, Txaridunak txerriak gordetzeko lokala zeukan kale horretan, eta Bermeana arrain enpresak ere hantxe zeukan biltegia.



Eta, Marañon sasi-medikua ere kale honetan bizi zen. Trenbideko zubiaren azpian Errota-Berri baserria zegoen, herrian Marañon izenez ezagutzen zena, hain zuzen ere, Marañon doktorea han bizi zelako. Petrikiloa zen, sasi-medikua, baina ospe handia zeukan, eta jende asko etortzen zen atzerritik, bereziki, Frantziatik. Landareekin egiten zituen botikak, eta urdaila bere lekuan jartzen sekulako abilezia zeukan. "Urdaila erorita zeukan jende asko etortzen zen Marañon doktorearengana", azaldu du Gloria Bollarrek. Baserriak XV. mendeko errota bat zeukan, eta 1970era arte egon zen martxan. Garia, artoa eta artatxikia txikitzen zuten han. 2002an bota zuten Errota Berri baserria, izen bereko auzo berria eraikitzeko.



**Elgoibarko enpresa garrantzitsu askok Ermuaranbide kalean hasi zuten euren ibilbidea**



## Bihar egingo dute auzotarren bigarren topaketa

### Nortasun handiko auzoa

Askotariko jendea batzen zuen ONU auzoak, etorkin asko tartean, eta hori dela-eta, Andoni Segundok uste du garai batean baztertutako auzoa izan zela beraiena. Herritik kanpora gertzen zen eta denetariko familiak biltzen ziren han, gehienak lanera etorritakoak. Baina auzokideek ematen diote auzoari xarma eta balioa; eta hango bizilagunek "harro" esaten dute nongoak diren. Nortasun handiko auzoa zen. "ONUKoa izateko karneta behar zela esaten genuen garai batean, eta edonori ez zioten ematen", gogoratu du Gerardok irribarrez. Haurtzaro "gogorra" izan zuten, baina Gerardok argi esan du ez lukeela



### Auzotarren topaketa


Orain dela bost urte egin zuten estreinako topaketa, eta hain irten zen ondo, batek baino gehiagok urtero egin behar zela esan ziela antolatzaileei. Urtero ez, baina bost urte pasatu dira, eta berriz elkartzeko unea iritsi dela erabaki dute. Gerardo Otero, Gloria Bollar eta Javi Garcia ibili dira prestakuntza lanetan, eta biharko antolatu dute ospakizuna. Egitaraua agendan irakurri daiteke. "Egun berezia" izango dela adierazi dute antolatzaileek, "sentimenduz beterikoa". 118 lagunek eman dute izena; belaualdi desberdinetakoak, Elgoibarren eta kanpoan bizi direnak, baina denek dute ezaugarri bat komunean: ONU. Horrek batzen ditu eta horrek egiten ditu berezi.



bere haurtzaroa aldatuko. Garai zailak zirela aitortu du, baina oritzapen oso politak gordetzen ditu oraindik: "Nire anaia auzoko kapitaina zen! Eraikineko bosgarren solairuan bizi ginen, eta hantxe bertan jokatzeko genuen futboleko edota kaniketako". Andonik ere berehala esan du bosgarren solairu horretara sarri joaten zela, "ambientea han zegoelako". Ez zeukaten gauza askorik, eta kalean pasatzen zituzten eguneko ordu gehienak, baina "pozik". Gaur egun Ikastola dagoen gunea zen auzoko umeen jolaslekua, eta San Joan suak ere hantxe egiten zituzten. 1977an eraiki zuten Ikastola berria.



## Erretratu zaharra



**1979**

Aste honetako erretratu zaharra Inga Seguiolak ekarri du BARRENEKO erre-dakziora. 1979. urteko argazkia da, Gerardo Garate eta Bittori Goenagaren ezkontza egunean ateratakoa, hain zuzen ere. Erretratuan Gerardo Garate (+) bera eta Sabin Txurruka ageri dira, pozik eta umore onean, zapatatik txanpana edaten.



ESKERTZA

## JOSE MARIA ARAMBERRI URRUTIA

2012ko irailaren 13an hil zen, 66 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Haren oroimenez meza izango da, domekan, irailak 23, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.





# IÑAKI AGIRRE

ONGARRI ZINEKLUBEKO ARDURADUNA

“Oraindik  
badago  
zine aretoak  
berpizteko  
modua”

Arg.: Jabi Leon

Iñaki Agirrerentzat zineak bere bizitzako ordu asko eta asko betetzen ditu. Ongarrik ia 40 urtean eman dituen filmak aukeratzeak munduko zinemaldiak urtez-urte arretaz jarraitzera eraman dute Agirre. Venezia, Berlin, Cannes, Toronto... eta, jakina, Donostiako Zinemaldia. Iñakiren iritziz, aurtengo edizioak itxura bikaina du. Zineak bizi duen krisiaz kontziente da, baina argi dauka zineak iraungo duela; egoera larriagoa da, baina, zine aretoentzat. Hala ere, oraindik badago zer eginik, bere ustez.

## Zer moduzko harrera du Ongarrik? Jendeak erantzuten dio ostegunetako zitari?

Pelikularen arabera izaten da, baina erantzuten du, bai. Gure publiko potentziala ehun lagun buektakoa da, gure neurketen arabera. Hala, 40 lagunetik gora biltzen baditugu guretzat asko da, zine areto batean ehun lagun bilduko balira bezala. Gure arazoa espazioa da, egun bakarra izatea. Badakigu gaur egun luxu handia dela zinekluba izatea.

## “Donostiako Zinemaldiaren 60. edizioa sekulakoa izango da”

### Noiz hasi zen Ongarri, eta nola moldatzen da zinekluba aurrera ateratzeko?

37 urte daramatzagu lanean, eta 750 film eman ditugu. Diru-laguntza bati esker ateratzen dugu proiektua aurrera, eta autore, estilo eta istorioak kontatzeko zine lengoia ezberdinak erakustea da gure helburua. Gainera, ostegunetako ikuslea leiala da.

### Kultur ekitaldiek jaso duten BEZ igoerarekin zer gertatuko da zine aretoetan?

Guk prezioa mantenduko dugu. Baina BEZ igoerak enpresario pribatua akabatu egingo du. Inguruko herrietan gertatzen dena da zineak erakundeen esku daudela eta horren aldeko apustua egin dutenez, etorkizun hurbilean zineak iraungo du.

### Garestia da kultura?

Bai, garestia delako filmak ekartzea. Hala ere, Elgoibarrek kultura eskaintza polita du. Gainera, aisialdiaren kontzeptua izugarri aldatu da. Orain zinea etxean kontsumitzen da.

### Zenbat denbora eskaintzen diozu zineari?

Orain ez hainbeste, ez daukagu hori erakusteko espaziorik eta horrek frustrazioa sortzen dit. Baina lehen hiru film ikusten nituen astean. Atera kontuak urtean zenbat diren!

### Zer iritzi duzu aurtengo Donostiako Zinemaldiari buruz?

Jose Luis Rebordinos zinemaldiko zuzen-

dariak bete-betean asmatu duela uste dut. Bost Donostia sari emango dituzte, eta guztiak pisudunak dira: Tommy Lee Jones, Ewan Mc Gregor, John Travolta, Oliver Stone eta Dustin Hoffman. 60. edizioaren zeroa aprobeztatuz sekulakoa antolatu dute. Itxura bikaina du!

### “Zinemaldiari glamourra falta zaio”. Zenbat aldiz entzun dugu kritika hori?

Aurten ez badu ezerk huts egiten, glamourra egongo da.

### Baina zer behar du zinemaldi batek: glamourra ala kalitatea?

Zinemaldi batek glamourra behar du, baina ez kalitatearen kaltetan, noski. Aurtengo denon gustukoa izan daiteke: izarrak Donostian eta kalitatea. Badirudi Rebordinosek oreka lortu duela oraingoan. Antolatu duenarekin Donostia oso mediatikoa izango da, orriak beteko ditu nazioarteko prentsan.

Eta kalitateari dagokionez, sail ofizialean, zinemaldiko atalik garrantzitsuenetan, zuzendari handiak ditugu: François Ozon eta Laurent Cantet frantziarrak, Bahman Ghobadi iraniarra eta Carlos Sorin argentinarra, esate baterako. Zine espainiarrari dagokionez, Fernando Truebaren *El artista y la modelo* eta Pablo Bergeren *Edurnezuri* filmak ikusi ahal izango dira, Donostian estreinatuko direnak eta, are gehiago, pasa den astean Oscar sarietarako aukeratutakoak. Horrek ikusmina gehitu dio. Ez du batere itxura txarrik aurtengo edizioak.

### Zer ez zenuke galduko aurtengo edizioan?

Bahman Gobadiren *Fasle Kargadan*, Taviani anaien *Zesarrek hil egin behar du eta* Michael Hanekeren *Amour*.

### Zer da zuretzat zinea?

Zine areto batean kartel ezberdinak dituzu, bat aukeratzen duzu eta leiho bat irekitzen duzu mundura. Ni ez naiz oso bidaia zalea eta zinearen bidez ezagutzen ez ditudan lekuetara iristen naiz. Egun batean, Mongoliako leihoa irekitzen duzu eta bi orduan han zehar bidaiatzen duzu. Horrez gain, niretzat zinea lengoaiak dira, istorioak kontatzeko moduak.

### Zein da zinearen etorkizuna?

Iciar Bollain zine zuzendariak oso ondo azaldu zuen: zinea egiten jarraituko da, baina aldatuko direnak erakustokiak izan-

go dira. Jendeak etxean filmak ikusten jarraituko du. Zine areto publikoak gutxinkatuta desagertuko dira, baina erakundeak diren erakustokiak, Elgoibarko modukoak, momentuz mantenduko dira. Ahalegin handia egiten dihardute zine emanaldiak eusteko. Teknologia berrietara ere egokitu dituzte emanaldiak. Urtean 60 film inguru ikus ditzakegu Elgoibarren eta eskertzekoa iruditzen zait. Jendeak ere ondo erantzuten du, gainera: 2010. urtean, esaterako, hamar mila ikusle pasa ziren Herriko Antzokitik. Bestalde, oraindik badago zine aretoak berpizteko modua. Ohiko eskemak gaintu behar dira. Politika sendoagoak jarri behar dira indarrean, pelikulen eskaintza handitu behar da eta emanaldi gehiago eskaini.

## “Ez naiz bidaia zalea eta zinearen bidez ezagutzen ez ditudan lekuetara iristen naiz”

### Zinea salerosteko era berriak aztertu behar dira? Legezko deskargen aldekoa zara?

Bai, noski. Etorkizunean ikusiko da nola antolatzen den hori eta horrela jendeak erabakiko du etxean ikusi edo zine aretoan. Etorkizunean posible izan daiteke filma estreinatzea eta zuk etxean ikustea. Ni horren aldekoa naiz, azken finean zinea jasotzeko moduak erraztea da, eta merkatzea ere bada.

### “Barrura begiratzeko leihoak”, ETako bost kideri egindako elkarrizketekin osatutako film dokumentalak polemika sortu du. Zer etorkizun du pelikula honek?

Ez dauka erraza. Zinemalditik kanpo laga zuten azalpen gehiegi eman gabe, eta horrelako film batentzat erakusleho garrantzitsua da, baina, hala ere, estreinaldia egin dute Victoria Eugeniean, mehatxuekin izan bada ere. Ea zer gertatzen den aurrerantzean!

## Ina Her professor

**Munlet taldeko Ina Herr professor gitarra jotzaileak disko berria jarri du Interneten: *Hail Zigurat!*. Munleten elektro-punk-rock soinutik urrun dagoen proposamena da.**

Ainara Argoitia

**“Urteetan pilatutako kantuak dira, Munleten lekurik ez zutenak”**



**Maraca Diablo abiatu eta 'Hail Zigurat!' izenburuko diskoa sareratu berri duzu (<http://maracadiablo.bandcamp.com/>). Nolatan?**

Urteotan gordetako kantuei aterabide bat emateko-edo. Honezkero jakingo duzue Ana eta biok guraso izango garela laster, eta Munlet geldi dagoela-eta, iruditu zitzaidan momentu ona zela aspalditik buruan nerabilen proiektu hau gauzatzeko. Berez, proiektu honen jatorria Uler 600 taldean dago, Munleten aurreko nire taldean. Rock psikodelikoa egiten genuen Uler 600en, Neil Young, Pink Floyd... estilo horretako musika. Eta Uler 600 laga genuenean nik jarraitu nuen era horretako kantuak egiten. Gero, Munlet sortu genuen, 2002. urtean. Elektro-punk-rock soinuak egiten genituen batez ere, baina bestelakoak ere sortzen nituen nik tarteka, eta Munleten lekurik ez zutenak gorde egiten nituen. Hain zuzen ere, urteetan pilatutako kantu horietako batzuk dira orain Interneten jarri ditudanak. Urteetan, tarte libreetan grabatutakoak. Gehiago ere badauzkat ateratzeko, baina hauek sortutako lehenengoetakoak dira, Uler 600en garaikoak edo.

**Munleten kantuekin alderatuz, rock eskema klasikoetatik hurbilago dauden kantuak direla jaso dute musika kritikoeak. Nola definituko zenituzke zuk zeuk?**

Bai, Munleten elektro-punk-rock soinutik urrun dagoen proposamena da. Folk edo rocketik gehiago dute; folk-rock klasikoetik. Egia esan, ez dakit nola definitu ere. Kantuak entzuteko dira, eta entzuten dituenak jakingo du definitzen. Baina, bai, esango nuke Munletek elektrikoetik duena honek akustikoetik duela.

**Aurten amaitu dituzu grabazio lanak. Zein musikari izan dituzu lagun lan honetan?**

Neure estudioan grabatu dugu, eta zenbait musikariren laguntza izan dut, bai. Bateria doinu gehienak Imanol Manterola (Uler 600 eta Kari-

dadeko Benta) taldekide izandakoarekin grabatu ditut. Uler 600en garaiko beste taldekide batek, Alberto Gonzalezek (Sei Nemen Bedertzi) teklatura jotzen du kantu batean, eta Iñaki Larreinak baxua. Dena den, egitasmoaren zatirik handiena neure gain hartu dut.

**Sarean jarri duzu diskoa entzungai. Formatu fisikoren batean ateratzeko asmorik baduzu?**

Ez diot buelta gehiegirik eman horri. Jendeak eskatzen duenaren arabera ikusiko dut zer egin. Aitortuko dizut, hala ere, harrিতa gelditu naizela diskoak izan duen harrerarekin. Joan zen astean eman nuen diskoaren berri Facebook-en bidez, eta jendea hasi zait deika dagoeneko. Harrera polita izan du, eta aukerarik izanez gero, gustatuko litzaidake diskoa euskarri fisikoren batean kaleratzea, bai, baina hori ondo aztertu beharra dago. Ez da diskoak saltzeko garai ona. Diskoak non erosi ere ez dago, pentsa!

**Zuzenekoren bat emateko aukera aztertu duzu? eta hala bada, aukerarik ikusten duzu aitzakia horrekin Uler 600 taldea berrir batzeko?**

Gauza bera da. Jendeak Maraca Diablo zuzenean entzuteko gogoia duela ikusten badut, ni neu prest nengoke. Hori bai, horretarako talde bat batu beharko nuke, eta horrek lan handia eskatzen du, eta ez zait iruditzen horretarako denborarik izango dudunik. Esan bezala guraso izango gara laster, eta orain momentuan zaila ikusten dut, egia esan. Ez dakit guraso izateak zenbat denbora kenduko didan ere!. Gauza bat da etxean astia daukazunean kantuak sortu eta grabatzea, eta beste gauza bat da taldeko dinamikan hastea, astero edo aldian-aldiko entseguekin eta hori dena. Hala ere, Uler 600 taldea berrir batzea are zailagoa ikusten dut. Bakoitza punta batean bizi da, Imanol hirugarrenez izan da oraintxe aita, ni neu nagoen egoeran nago...oso-oso zaila ikusten dut.



**Lekuederreko eskailerak zikinkeriaz beteta zeuden joan zen astean:** "Barixaku goizean Lekuederreko eskailerak kartoiz eta egurrezko ohol handi batekin zikin-zikin eginda esnatu ziren. Umeak ibiltzen dira jolasean, eta badakigu umeak ume direla, baina gurasoek kontu handiagoz zaindu beharko lituzkete horrelakoak. Ez dago eskubiderik".



**Karkizaoko bide bazterrak sasiz beteta daude:** "Karkizaoko bidean jende asko ibiltzen da pasiatzen, eta noizean behin bide bazterreko sasiak moztu egin behar direla iruditzen zaigu. Makina handi bat pasatzen dute eta harekin garbitzen dute gehiengoa, baina beheko aldean geratzen diren sasiak ez dituzte moztzen. Jarlekuak daude bide bazterrean eta jendeak sasi artean eseri beharra izaten du. Sarritan joan gara udaletxera abisua ematera, eta joaten garenean moztzen dute, baina udaletxera joan gabe ere egin beharko lukete".

**Albitxuritik Ermuaranbide kalera doan bidea konpondu egin behar da:** "Albitxuriko industriagunetik Ermuaranbide kalera doan bidea oso egoera txarrean dago. Estua da, zuloz beteta dago, eta beheko aldeko kanala oso handia da. Meka ikastetxea martxan dagoenetik autoen joan-etorriak nabarmen egin du gora, eta asko dira industrigunera joateko bide hori erabiltzen dutenak. Eskertuko genuke ganorazko bide bat egingo balute. Mila esker".



**elgoibar ikastola**

**Konfiantzan IKASTOLA**

HH 0 (2012an jaiok)  
 azarotik otsailera hasteko  
 matrikula zabalik  
 irailaren 17tik 28ra

Ordutegi zabala:  
 7:30-19:30  
 jai zubietan eta oporretan  
 irekita

## Danele Sarriguartek irabazi du Igartza Saria, 'Mamuak' izeneko eleberri proiektuarekin

Urtebeteko epea izango du elgoibartarrak liburua idazteko

**D**anele Sarriguarte elgoibartarrak irabazi du aurten Igartza Saria lehiaketa, *Mamuak* izeneko eleberri proiektuarekin. Emakume obsesibo bat izango da eleberriko pertsonaia nagusia eta kontalaria; haustura sentimental baten ostean autotorturatzeko joera duen emakumea, alegia. Sei mila euroko beka eskuratu du Sarriguartek, eta urtebeteko epea izango du orain liburua idazteko. Ondo bidean, 2014. urte hasieran kaleratuko du liburua Elkar etxetik.

### Hamabi lan

Idazle gazteei bultzada emateko sortu zuten Igartza Saria, orain dela 15 urte. Aurten hamabi lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta Uxue Alberdi, Igor Estankona eta Xabier Etxeberria epaimahaikideek Danele Sarriguarteren lana aukeratu dute. Danele Sarriguarte Mochalesek 23 urte ditu, eta aurretik libururik argitaratu gabea da. Itzulpengintzan lizentziatua, martxo hasieratik [www.elearazi.org](http://www.elearazi.org) intzulpengintzari buruzko webgunea du martxan, Garazi Arrularekin batera.



## 'Ezekiel nora ezean' liburua kaleratu du Jasone Osorok



Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarrak *Ezekiel nora ezean* gazteentzako liburua aurkeztu du aste honetan. Ezekielek 15 urte ditu, lagunarte jator bat, neska-lagun moduko bat... Bizitza zoriontsu hori, baina, aldatu egingo da, inoiz ikusi ez duen aita bat-batean agertzen denean. Batetik, aita ezagutu nahi du, baina alde egin izana ere aurpegiratu nahiko lioke. Horrez gain, Ezekielek baditu beste arazo batzuk: amarekin eta arrebarekin eztabaidak, lagunekin gorabeherak...

Ezekielen estreinako abenturak kaleratu zirenetik bi urte pasatu dira, eta ordutik, Juul Saria eta Liburu Gaztea sariak irabazi ditu Osorok liburu horrekin.

## 'Royal Canal' taldearen kontzertua gaur gauean Kultur Etxeko sotoan

Royal Canal taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean Kultur Etxeko sotoan, Sotoko Hotsak egitasmoaren barruan. Iñigo Cabezafuegoren proiektu berria da Royal Canal. Mermaid eta The Basque Country Pharaons taldeak laga ostean, Atom Rhumban jotzen ibili zen, eta orain bere proiekturik pertsonalena sortu du: Royal Canal. Rock eta soul estiloa dira nagusi bere abestietan.

Sotoko Hotsak egitasmoari amaiera emateko, bestalde, Jupiter Jon taldearen kontzertua izango da bihar. Jupiter Jon Irungo taldeak 2011n kaleratu zuen euren estreinako lana. Musika basatia egiten dutela diote, Balkanetako haurkanten, post-punkaren, kantu txinatarren eta kraut musikaren kutsuarekin.

Bi kontzertuak 23:00etan hasiko dira, eta sarrerak 3 euro balio ditu.




# Arnaldo Otegiren azken urteotako ibilbidea jaso du Fermin Munarriz kazetariak 'El tiempo de las luces' liburuan

Irailaren 28an jarriko dute salgai liburua, 'Gara' egunkariarekin batera

**A**rnaldo Otegiren azken urteotako ibilbidea bildu du Fermin Munarriz kazetariak *El tiempo de las luces* izeneko elkarriketa liburuan. *Gara* egunkariarekin batera salduko dute liburua, hilaren 28an, baina aurrerapen moduan, hainbat pasarte argitaratu zituzten *Gara* egunkarian asteburuan, eta zeresan handia eman dute.

2005etik gaur egunera arteko bidea nolakoa izan den kontatzen du Otegik liburuan, eta beste hainbat gairen artean, ETaren ekintza armatuen biktimen senideei barkamena eskatu die: "Ezker abertzaleak sortutako mina aitortu du, eta nik urrunago joan nahi dut. Bozeramaile gisa ETaren ekintza armatuen biktimen familiei min, sufrimendu eta umiliazio izpirik eragin badiet, hemendik barkamena eskatu nahi diet, 'sentitzen dut, bihotzez' batek lagunduta".

Borroka armatuaz galdetuta, Otegik dio "ETAko militantea" izana dela, frankis-



mo garaian borroka armatuan aritu zela eta, hortaz, ulertu duela "salbuespenezko baldintza politiko eta sozialak" daudela.

Ezker abertzalearen eztabaida estrategikoa ere aipatu du Otegik liburuan. "Ezker abertzalearen trasatlantikoa biratzeko konpromisoa hartu genuenean, nire diagnostia

zen ibilbide oso laburra geratzen zitzaiola kostaldearekin talka egiteko", dio Otegik ireki den ziklo berriari buruz. "Gaur egun, independentismoak hegemonikoa izateko gaitasuna du".

Liburuaren jatorrizko bertsioa gaztele-raz idatzi dute, eta azarorako euskaratuko dutela adierazi dute arduradunek. Nahi duenak ondorengo helbide honetan eskatu dezake euskarazko bertsioa: <http://el-tiempodelasluc.es/naiz.info/naiz01.html>

## 2013ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak



2013ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du Udaleko Euskara Sailak, eta dagoeneko argitaratu ditu parte hartzeko oinarriak. Lehiaketako gaia Elgoibarko gizarte bizitza izango da, hau da, tradizioak, kultura, ohiturak, lanbideak... Ez dira onartuko Elgoibarri erreferentziarik egiten ez dioten argazkiak. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, eta bakoitzak sei argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Udaleko eta Ongarri argazki elkarteko arduradunek hamabi argazki sarituko dituzte, bakoitza 65 euroekin. Interesatuak urriaren 19ra arteko epea dute erretratuak aurkezteko. Informazio gehiago eskuratzeko Udaleko Euskara Sailera jo daiteke (943 744 366 / [euskara@elgoibar.org](mailto:euskara@elgoibar.org)).

### Emakumeentzako hip hop ikastaroa hasiko da urriaren 2an

Urriaren 2tik aurrera, 30 urtetik gorako emakumeentzako hip hop ikastaroa eskainiko du Kirol Patronatuak. Gorputzaren alor fisikoa, eta hip hop dantzaren oinarriko pausoak landuko dituzte, bereziki. Astean bi saio eskainiko dituzte: martitzene-tan, 9:10etik 10:10era eta eguenetan 10:10etik 11:10era. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefonora deitu daiteke: 679 237 611 (Maria).

## Orreaga-Belagua mendi ibilaldia antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak azaroaren 1eko jai zubirako

Izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko

**N**afarroa arragoa egitasmoaren barruan Orreaga-Belagua mendi ibilaldia antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak azaroaren 1,2,3, eta 4 egunetarako. Azaroaren lehenengoan, osteguna, irtengo dira Elgoibartik, Kalegoen plazatik, Nafarroarantz (8:00). Autobusez egingo dute Orreagara artekoa. Gero, GR-11a hartu eta Mendilaz aterpetxera arte, bost orduko mendi ibilaldia egingo dute oinez, eta Mendilaz aterpetxean bertan afaldu ondoren, hango akanpaleku batean igaroko dute gaua, kanpin-dendetan.

Biharamonean, Mendilaztik Otsagiraino joango dira. GR-11 bideari segika, Iratiko oihana zeharkatuko dute, Otsagiraino. 7-8 orduko ibilbidea da. Osate kanpinean pasatuko dute gau hori. Azaroaren 3an, berriz, Otsagitik Izabaraino joango dira. Bi aukera proposatzen dituzte egun horretarako: batetik, GR-11tik Izabara, Kakueta (1.365 m.) tontorra eginda (6 orduko ibilbidea). Bestetik, Otsagitik Abodi (1.533 m.) mendira igo, eta handik Izabaraino jaitsi, GR-12tik (10 orduko ibilbidea). Hotel Isaban igaroko dute gau hori. Azkeneko egunean, Izaba-Belagua inguruan ibiliko dira. Kontrabandisten bidetik Kartxela mendira igoko dira (1.982 m.) eta Belaguako aterpetxera jaitsiko dira ondoren. Han zain izango dute bueltarako autobusa. Zortzi bat orduko ibilaldia izango da.

Morkaikoko eta Elgoibarko Izarrako bazkideek 110 euro or-



daindu beharko dute (ikasle eta langabetuek 90 euro), eta bazkide ez direnek, 120. Prezioan honako hau sartzen da: hiru gosari, hiru afari, Otsagitiko kanpina, Izabako apartamentua eta autobusa. Izena ematen dutenek jakin behar dute lau egunetan behar duten guztia motxilan eraman beharko dutela. Zabalik da dagoeneko izena emateko epea, eta interesatuei lehenbailehen apuntatzeko eskatu diete antolatzaileek.

## Somos Eibar taldearen kontra jokatuko du ligako estreinako partida Alcortak zapatuan, Eibarren



Alcorta eskubaloit taldea.

laz mailaz igotzea lortu ostean, zapatuan jokatuko du Alcorta esku-

baloit taldeak Espainiako Lehen Mailako Ligako estreinako partida, Eiba-

rran, Somos Eibar taldearen kontra. 19:00etan izango da partida Ipurua kiroldegian, eta zalantzarik gabe, norgehiagoka berezia izango da, bateko eta besteko zale ugari batzea espero delako. Ligan, Zaragoza, Salamanca, Soria eta Cantabriako eskubaloit taldeen kontra lehiatuko dira elgoibartarrak, besteak beste.

Joan zen astean, berriz, Egriaren kontra jokatu zuen Alcortak Elgoibarran, eta donostiarrak nagusitu ziren, alde bakarreko aldearekin. Hala, Kopako lehenengo fasetik kanporatuta gelditu dira elgoibartarrak. Egia eta Somos Eibar taldeek egin dute aurrea.

# Bihar, hilak 22, jokatu da Elgoibarren Gau Krosa herri lasterketa

Lekuederren karpa zabalduko du gaur Atletismo Taldeak

**B**ihar, 20:00etatik aurrera, jokatu da Elgoibarren Gau Krosa, Mintxeta Atletismo Taldeak antolatutako herri lasterketa. Juan Mugertza Nazioarteko Kroserako dirua batzeko antolatu zuten lehenengoz Gau Krosa, eta aurtengoa hirugarren edizioa da. Zortzi kilometroko lasterketa da, eta urtetik urtera parte-hartzea handitzen ari da. Hala, aurtengo 400 lagunentzako lekua izango dela aurreratu dute antolatzailleek. Interesatuak [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean eman dezakete izena, edota bihar 18:30etik 20:00ak bitartean espreski horretarako jarriko duten mahaiari.

Gau krosaren aurretik, arratsaldean, 15 urtera arteko gaztetxoentzako lasterketa ere antolatu dute. Gaztetxoek gurasoekin hartu beharko dute parte, eta lasterketa amaitutakoan opari bana jaso dute.

Bihar jokatu dira lasterketak, baina gaur hasiko da atletismoaren jaia. Izan ere, 18:30ean zabalduko dute gaur Mintxeta Atletismo Taldekoek karpa, Lekuederren. Gaur eta bihar afaltzen emango dute bertan, eta bertso saioak eta musika emanaldiak ere izango dira.



lazko Gau Kroseko argazkia.

## Tenis eta padel ikastaroak antolatu ditu 40-15 elkarteak

Tenis eta padel ikastaroak antolatu ditu 40-15 elkarteak. Urriaren 1ean hasiko dira tenis ikastaroak, Mintxetako tenis pistan. Iaz, 25 lagunek eman zuten izena, eta bost talde osatu zituzten guztira. Iaz bezala, asteen bi orduko eskolak izango dira. Interesatuak kiroldegian eman behar dute izena. Hala ere, antolatzailleek bi telefono zenbaki jarri dituzte, informazio gehiago behar dutenen eskura: 696 577 872 / 670 665 797.

Era berean, padel ikastaroak ere izango dira aukeran. Hogei orduko ikastaroa antolatu dute, eta urriaren 2an hasiko dira eskolak. Tenis ikastaroetan bezala, asteen bi orduko klaseak izango dira, Mintxetako padel pistetan. Interesatuak kiroldegian eman behar dute izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, berriz, honako telefono zenbaki honetara deitu dezakezue: 687 421 602.

## Joseba Rojo eskiatzaile tolosarrak irabazi du Idotorbeko Roller-ski Igoera

**Z**apatuan jokatu zen Idotorbeko Roller-ski Igoera, eta Joseba Rojo tolosarra nagusitu zen, 17:00ko denborarekin. Hamabost lagunek parte hartu zuten guztira (hamalau gizonezko eta emakumezko bat) eta Iñigo Lariz izan zen gure ordezkarietan azkarrena (20:22). Larizek laugarren egin zuen, Joseba Rojo, Josu Erkizia donostiarra (17:45) eta Txetxu Lete zarauztarraren (20:22) atzetik.

Joseba Rojo izan zen azkarrena, 3,5 kilometroko ibilbidea osatzen, eta minutu batean ondu zuen iazko marka. Kontuan izan behar da, hala ere, iaz, Kalegoen plazatik abiatu zirela parte hartzaileak, eta aurtengo, berriz, Santa Klarako bidegurutzetik.



Arkaitz Irureta, Idotorbera bidean.

Arg.: Joseba Elustorndo

**LANA**

**ESKAERA**

- Neska lan bila: etxeko lanak egin edo tabernan laguntzeko prest. Erreferentzia onak eta papelak legez ditut. ☎ **664 182 488**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Papelak legez. ☎ **671 139 176**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest, etxean nahiz ospitalean. Esperientziaduna. ☎ **660 511 781**
- Emakumea, lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 649 321**
- Gizona edozein lan egiteko prest. ☎ **636 029 526**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edota umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648 603 029**
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia okin eta garbiketa lanetan. ☎ **675 452 060**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edota umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **627 626 052**
- Emakume euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **617 637 133**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **602 371 443**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **634 781 954**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **618 134 615**
- Elgoibarko mutila, baso tasatzaile ofiziala, baso aholkularitzarako eskaintzen da. ☎ **607 885 609**
- Neska umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **632 619 997**
- Magisteritza Lizenziatutako neska LHko klase partikularrak ematen ditu. ☎ **666 329 728**
- LHko eta euskarazko klaseak ematen ditut. Esperientzia daukat. ☎ **697 322 306**

- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialetarako prestakuntza. Talde txikiak. ☎ **680 858 550**
- Mutila, lan bila. ☎ **688 812 845 / 943 257 671**
- Emakumea, lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **681 065 683**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut etxez etxe. ☎ **943 744 062 / 680 319 002**
- Mutila nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Alemanierako klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa EOI. ☎ **670 793 312**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. ☎ **699 609 190**
- Emakume langilea, konfiantzakoa eta arduratsua umeak zaintzeko prest. Arratsalde. Erreferentzia onak. ☎ **626 330 003**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**

**ESKAITZA**

- Sukaldaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko. ☎ **943 530 284**
- Donostiako enpresa batek teknikari saltzailea behar du. Curriculumala bidali: [info@murplastik.es](mailto:info@murplastik.es)
- Asteburuetan ostalaritzan lan egiteko neska euskalduna behar da. Curriculumala bidali erretratuarekin, **174 postakutxatilara.**
- Debako Kresala hoteleko harreraren lan egiteko pertsona behar da. Interesatuak bidali CVa ondorengo helbidera: [deba@aisiahoteles.com](mailto:deba@aisiahoteles.com)

**ETXEBIZITZAK**

- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **690 701 118**
- Etxea hartuko genuke alokairuan. Bikotea eta seme-alabak. Nomina daukagu. 3 logela eta berogailua ezinbestekoak. ☎ **634 718 510**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **600 621 605**
- Pisua salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, koina, sukalde, ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **688 658 183**
- Hiru logelako etxea salgai Basarten. Garajea eta trastelekua. Berria, prezio ezinhobean. Oso argitsua. Alokatzeko aukera, ondoren erosteko. ☎ **675 676 129**
- Pisu txikia hartuko nuke alokairuan. ☎ **679 237 611**
- Hiru logelatako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **677 077 786**
- Emakume arduratsuak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **943 530 631 / 663 510 520**

**GARAJEAK**

- Garaje marraduna alokairuan Pedro Muguruza 11n. ☎ **606 707 915**
- Garaje itxia alokairuan, Jausoro plazan. Udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garajea alokairuan, Jausoro plazan. Ate automatikoarekin. ☎ **600 587 328**

**BESTELAKOAK**

- Pianoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 920. Berri berria. Prezioa adosteko. ☎ **605 771 093**

**SIU**  
fisioterapia zentroa  
Amala Saenz  
Col. 1452  
943 257 154  
Aita Agire Plaza - 7  
ELGOIBAR  
[siufisioterapia@gmail.com](mailto:siufisioterapia@gmail.com)

**Zabalik!**

**CORDON VILARCHAO**  
Kargo eta barmen-estaldura  
Zolak ezartzea  
Lanadun: egut, aluminio, PVC  
Pisua orokorra  
San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulak  
Tel. 943 749 670

**DEKORAZIOA**  
GRUP  
VILARCHAO

Irailaren 16tik 30era  
**%20ko deskontua**  
**XEY** sukaldeetan  
eta Siemens markako  
etxetresna elektrikoetan

**ETXEKIT** 12 urteko bermea  
Arriaga z/g - Elgoibar - Tel. 943 74 43 47

Luis F. Beristain  
Korporazioa  
**XEY** FORMA  
baratzeko ofiziala



• Zorionak, **Maddi**, irailaren 13an 8 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Olatz**, atzo 7 urte egin zenituelako! Igandera arte ospatuko dugu zure urtebetetzea, senide eta lagunekin. Ondo pasa!



• Zorionak, **Nora**, familiako guztien partez, zure seigarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Uxue**, Ilgandean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, gurasoen, eta, bereziki, Danelen partez.



• Zorionak, **Luken**, Konturatzerako iritsi da zure eguna ere. Gaur urtebete! Patxo bat, etxeko denon partez.




• Zorionak, **Jara**, hilaren 19an 8 urte egin zenituelako. Familiako-en partez, muxu bat.



• Zorionak, **Nora**, doimekan 6 urte egingo dituzulako. Etxekoen eta, bereziki, Miren eta Maiteren partez.



• Zorionak, **Asier**, hilaren 19an 3 urte bete zenituelako. Muxu asko, etxekoen partez.



• Zorionak, **Danel**, asteazkenean 6 urte handi beteko dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Aupa, **Mikel**, ondo pasa eguna, familia osoaren partez, eta bereziki, Oihanaren partez. Zorte on, partidarako.



• Allegatu da egun! Zuek hasiko zineten ospatzen, eta gu laster igoko gara. Ondo pasatu. Zorionak, bikote.



• Azkenean iritsi da zuen eguna, bikote! Primeran pasa zuen ezkontza egunean. Zorionak, eta muxu handi bana, familiako-en partez.



• Zure begirada, zoriontasuna. Zorionak, ama, amama, birramona. Eguzkiraino eta buelta maite zaitugu.



• Urtebete zaharrago egin zarala eta zimirrak pinturarekin estaltzen hasi zara? Zuloko irrien lagunaren partez, muxu, "printzesa".



• Zorionak, **Luken!!** Ondo pasa zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat, Jare eta Oinatzen partez..



• Zorionak, bikote. Azkenean iritsi da eguna. Egun polita opa dizuegu, eta orain arte bezain zoriontsuak izatea. Familiako-en partez, bereziki Malenen partez.



• Zorionak, **bikote!** Primeran pasa genuen zuen ezkontza egunean! Muxu handi bat, koadrilako-en partez.

## OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA



Hauxe da zuen hilabetea! Zorionak guztioi!

• Zorionak, **amama Lolita**, munduko amarik onena. Mila muxu, familiako guztien partez.

### AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU.

Erretratu bakarreko agurra 4€,  
argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3 €,  
argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguztzen eguerdia**  
baino lehen ekarri behar dira

BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen,  
edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## 21 barixakua

### *Atletismoaren festa*

**18:30** Karparen irekiera  
Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, musika eta afaria, Lekuederren.

### *Aisialdia*

**17:30** Kiribilka  
Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxe aurrean.

### *Musika*

**22:30** Sotoko hotsak  
Sinuosek antolatuta, Royal Canal taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

## 22 zapatua

### *ONU auzoko bazkaria*

**11:00** Elkartzea  
Txariduna hotelean  
**11:15** Luntxa  
**12:30** Auzoari buruzko dokumentala  
Herriko Antzokian  
**13:00** Nagusiei omenaldia  
Herriko Antzokian  
**14:30** Bazkaria  
Sigma jatetxean

### *Aisialdia*

**12:00** Malabareen tailerra  
**14:30** Herri bazkaria  
**17:00** Jolasak  
**20:00** Hira taldearen kontzertua  
Zubibai elkarteak antolatuta, Altzolan.

### *Kirola*

**20:00** Gau krosa  
Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, Kalegoen Plazan.

### *Musika*

**22:30** Sotoko hotsak  
Sinuosek antolatuta, Jupiter Jon taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

## 23 domeka

### *Musika*

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua  
Herriko Antzokian.  
1. *Pinos de Roma* (O. Respighi)  
2. *The millenium song* (Kees Vlak)  
3. *La del manajo de rosas* (P. Sorozabal)  
4. *Katuska* (P. Sorozabal)  
5. *Cloudburst* (E. Whitacre)  
6. *Lord Tullamore* (C. Wittrock)


## 25 martitzena

### *Hitzaldia*

**18:00** 'Alzheimerrarekin bizi'  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### *Kultura*

**19:00** 'Nafarroa Arragoa'  
Urrirako kultur programaren aurkezpena, Kalebarren plazan.



Irailaren 24an, astelehena,  
**17:00**etatik aurrera **eskulanak**,  
Kalegoen plazan.  
HH5-LH6 bitarteko  
haur guztientzat"

2000. urtean jaiotakoentzat egunpasa antolatu dugu. Goizean, **hileko feriako entsalada lehiaketan** parte hartu. Arratsaldean, **lasergunera irteera**. Informazio gehiago, Gaztelekuan (943 74 32 28)



**OKINDEGIA**  
23 domeka **IBARRENEA**

**BOTIKA ORDUTEGIAK**  
**9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**

**GUARDIAK**

<b>Egunez</b> 9:00 - 22:00	<b>Gauetz</b> 22:00 - 9:00	<b>Fernandez</b> Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
21 Fernandez	Yudego	
22 Yudego	Yudego	<b>Ibañez</b>
<b>23</b> Yudego	Yudego	Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638
24 Zabaleta	Barrenetxea	
25 Barrenetxea	Barrenetxea	<b>Zabaleta</b>
26 Ibañez	Yudego	Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384
27 Garitaonandia	Garitaonandia	

**ZINEA**

**«¿El Skylab»**

**Ongarri zinekluba**  
22, zapatua: 19:00/22:15  
23, igandea: 19:00  
24, astelehena: 21:30

**Zuzendaria: Julie Delpy. Frantzia, 2011. Iraupena, 113 min. Generoa: Komedia. Aktoreak: Julie Delpy, Lou Alvarez, Eric Elmosnino, Aure Atika. 1979ko uztaila. Albertine, 10 urteko neskatila, eta bere senideak Bretainiako etxe batera joango dira asteburu pasa, amonaren urtebetetzea ospatzeko. Familia bereko hiru belaunaldiren istorioa kontatzen du filmak, modu alai eta dibertigarrian.**

# Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

## Ordutegi bereziak!

- Talde murriztuak mailaka.
- Komunikazio klaseak.
- 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
- 3 ordu astean. (Goizez eta arratsaldez)

2012-2013 kurtsoa urriaren 1ean hasiko da eta ekainaren 21ean bukatuko da

## Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

9 4 3 7 4 4 0 4 0

w w w . i l s . e s

# ILS



Nik maite  
dut  
euskara

CURSO 2012 • 2013 IKASTURTEA  
Matrikula zabalik • Matricula abierta  
**UDAL EUSKALTEGIAK**



**DEBABE**  
Udal Euskaltegia

Kalebarren plaza 2  
ELGOIBAR  
943 742 731  
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

## 2012-2013 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

### Matrikula zabalik • Matricula abierta

Izena emateko epea irailaren 28ra arte  
Plazo de inscripción hasta el 28 de septiembre



Aurrez aurrekoak, 2, 3 edo 4 egun astean  
Autoikaskuntza internet bidez

Ikastaro bereziak  
Enpresak  
AISA (Etorkinak)  
Merkatariak eta ostalaritza

Azterketetarako prestakuntza  
Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)  
HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak  
EGA

16 urtetik gorakoentzat  
DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK



Ordutegia:  
09:00 - 13:00  
15:30 - 19:30

# 2012ko SAN MIGEL JAIK

## Elgoibarko AIASTIA Auzoan

### IRAILAK 28 - Ostirala

- 19:00etan: **Kanpai jotzea** jaien hasiera adieraziz.
- 21:00etan: **BERTSO AFARIA.** Ziarda eta Narbaizarekin.
- Ondoren: **Laja, Narbaiza eta Lutxurdiorekin Erromeria.**

### IRAILAK 29 - Larunbata

#### "SAN MIGEL EGUNA"

- Goizeko 11:00etan: **Meza.**
- Ondoren: **ZIARDA eta MAÑU** bertsolariak
- Eguerdiko 13:00etan: **Pilota Partidua.**
- Ondoren: **ELUSTONDO** anai-arrebekin erromeria.
- Arratsaldeko 17:00etan: **San Migeleko XII. ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA** Euskal Herriko arraza libreko finala.

#### ARTZAINA

PELLO SEGUROLA  
PELLO PAGADIZABAL  
JOSE RAMON ORBEGOZO  
IGNACIO ECHEVERRIA  
JOSE ANTONIO CRUZAELEGUI  
MANUEL DORRITI  
JOSE ANTONIO AGUIRRE  
VICTOR BENGOCHEA

#### HERRIA

MATXIMBENTA  
AIA  
ARANZAZU  
AZPEITIA  
ARRASATE  
AIZARNAZABAL  
ABADIANO  
GALDAKAO

#### OHARRA:

Aparkalekua egongo da.  
Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharrez jabetuko.

#### Laguntzaileak:

Beristain Logistika, Katei, Unzue Pentsuak,  
Auto-servicio Arrizabalaga, Kalamua Elkarte, Haritz EDT.

- Gaueko 22:30ean: **Borja Uzuriagaren oroimenez Haritz EDTaren Ekitaldia.**
- Ondoren: **Erromeria ELUSTONDO** anai-arrebekin.
- 01:00ak aldera: **BOLO TXAPELKETA.**  
**SARIAK:**
  1. **Motoserra**
  2. **70 euro**
  3. **50 euro**
  4. **25 euro**
  5. **15 euro**
  6. **Ustekabea**Lehenengo auzotarrantzako garaikurra.

### IRAILAK 30 - Igandea

- Goizeko 11:30ean: **Meza.**
- Ondoren: **BALTZOLA ANAIK** trikitilariak.
- 12:00etan: **SAN MIGELERA VI. IGOERA KORRIKA**
- Arratsaldeko 17:00etan: **IDI DEMAK** ZUBIBARRI (Ziortza-Bolibar) OLIDEN (Orio) ISIDRO ERRETEGIA (Azkoitia)  
**SARIAK:**
  1. **900 euro, garaikurra eta mantak**
  2. **800 euro eta garaikurra**
  3. **700 euro eta garaikurra**
- Ondoren: **BALTZOLA ANAIK** trikitilariak



elgoibar  
bizi-bizirik

**Belaustegi**  
Baserría  **JATETXEA**  
Joan Mugerra  
Sukaldaritza

San Migel Gains (Año de San Miguel)  
20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa  
Tel.: 943 74 31 02 • Fax: 943 74 35 41  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

**EGVR LVR**  
VENTA Y REPARACIÓN



Karreen Plaza, 21 behe • Tel.: 94 616 75 32  
48270 MARKINA - XEMEIN - Bizkaia



Erakuntza Garbiketa  
eta Lorazaintzako Makinaria

Pol. Olaso, C/ Olaso 14  
20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa  
Tel.: 943 74 08 96  
Fax: 943 74 25 90  
[arizabal@arizabal.com](mailto:arizabal@arizabal.com)  
[www.arizabal.com](http://www.arizabal.com)

**ITUARTE**  
PENTSUAK, S.L.

Kareaga Industrialea, Pab. 6, Sub. 1  
Tel.: 94 616 87 88 • Fax: 94 616 91 24  
48270 MARKINA - XEMEIN - Bizkaia